

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN
74/2022 TXOSTENA

Gaia: Garbitasunerako ibilgailu elektrikoen hornidura renting bidez

Espediente sustatzailea: Zerbitzu Saila

Espediente tramitatzaileria: Idazkaritza Saila

Espediente zenbakia: KON_IRE_0003 (2022)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria

Prozedura: Irekia. SARA

Izapidea: Arrunta

Balio estimatua (lizitazio prezioa+ luzapenak+ eraldaketak%20, BEZ barik): 739.200,00€

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua (lizitazio prezioa+BEZa): 894.432,00€

Epea: 48 hilabete

Esleipen irizpideak:

Objektiboak (70): Prezioa % 55 eta emate epea % 15

Subjektiboak(30): - Ibilgailuen kalitate teknikoa %10, makinaren diseinu ergonomikoa %10 eta saldu ondorengo zerbitzua % 10

Ikuskatutakoa	Bete da	Oharra
Espedientea hasteko beharrezana justifikatu da	Bai	2022/10/24 txostena
Xedea, balio estimatua, beharrezana, iraupena, prozedura, kaudimena, baldintzak eta irizpideak justifikatu dira	Bai	Teknikariaren 2022/11/02ko txostena
Baliabide pertsonal edo materialak ez izatea justifikatu da	Bai	Teknikariaren 2022/11/02ko txostena
Loteak aplikatu dira edo ez aplikatzea justifikatu da	Bai	Aplikatu dira
Kreditu atxikipena dago	Bai	2022/000948-949
Plegu administratibo eta tekniko zehatzak daude	Bai	



<u>Aurretzako ikuskatze ekonomikoa dago</u>	<u>Ez</u>	Ondoren egingo da
CPVa egokia da	Bai	
Kontratazio organoa zuzena da	Bai	Alkatetza
Kontratuaren iraupena zuzena da	Bai	
Kontratuaren izaera juridikoa eta mota zuzena da	Bai	Hornidura kontratu administratiboa
Prozedura egokia dela justifikatu da	Bai	Irekia
Izapidea egokia da	Bai	Arrunta
Proposamenak aurkezteko epea egokia da	Bai	Egutegiko 30 egun
Esleipen irizpideak egokiak dira	Bai	
Justifikazioa		
Helburuarekin lotura		
Proporzionalak, objektiboak		
Kalitate-prezioa		
Hainbat irizpide		
Formulak justifikatuta		
Irizpide sozial eta ingurumenekoak		
Errekurtsoak egokiak dira	Bai	

Ondorioa	Oharrak
Aldeko txostena baldintzatuta	<p>Eusko Jaurlaritzaren ekonomia, garapen, jasangarritasun eta ingurumen sailaren txostena falta da espedientean. Otsailaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak, bere 21.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera, 2020tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailu guztiek (% 100) ordezkotzeko erregaiak erabili beharko dituzte. Alde horretatik, azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak bere 27.4 artikuluan zehazten duenaren arabera, Administrazio publikoen kontratazio-organoei, lizitazio-prozesuak argitaratu aurretik, nahitaezko txostena eskatu behar diote Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 21.2 artikulua betetzearen aldeko txostena egiteko, edo dagokion salbuespen-ebazpena, aipatutako Legearen 21.3 artikuluan ezarritakoaren arabera ordezkotzeko erregaiak erabiltzeko betebeharrak salbuetsi daitezkeen sailen edo erakundeen kasuan.</p>



	<p>2022ko maiatzaren 3an Eusko Jaurlaritzako erregistro elektronikotik (S.E: 2022RTE00380311) txostena eskatu zen eta gaur egun arte ez dago erantzunik (erabilitako tramitea txostena eskatzeko ez ei da zuzena) . 254/2020 Dekretuarekin bat txostena nahitaezkoa da eta baiezkoa izan behar da prozedurarekin aurrera egiteko.</p> <p>Kontuan izan behar da 254/2020 Dekretuak, 27.7 atalean gora-jotze errekurtsua jartzeko aukera ematen dela isiltasun kasuetarako.</p> <p>Beraz, kasu honetan araudi propiora jo behar dugu eta ezin dugu urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidegoaren 39/2015 Legea jo behar dugu. Lege horren 80. artikulua, 3.eta 4.ataletan dioena aplikatu.</p> <p>Kontuhartzailearen aldeko aurretiazko fiskalizazio txostena behar da.</p> <p>Erabaki proposamena dekretura bideratu ordurako aldeko txostenak (edo txostena eta salbuespen-ebazpena) egon behar dira.</p>
--	---

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan
Jurdana Uriarte Lejarraga
Idazkari nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B19E600M1O1C8M0Q0F0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
17/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/11/2022
16:05:07

EXPEDIENTE ::
2022KON_IRE_0003
Data: 18/02/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

